

Aitona ta biloba

GARITONANDIA'ar BITORÉ apatzak

IRATZIBERO

BI ATAL'DUN ANTZERKIA

(Edequen baina gogaita.)



1921

ENEKO DELINA'EN IRATZIBEROA. — GARAIA, 25
DONOSTIA

Aitona ta biłoba
GARITAONANDIA'tar BITORĀ apaizak

IDATZITAKO
BI ATAL'DUN ANTZERĀKIA
(Edespen baten gogařiz.)

1921
ENEKO DEUNA'REN IRAĀKOLA.-GARIBAI,38
DONOSTIA

Gotzai-baimenaz.

Jabeduna da.

URĒTA tař MIKEL
euskeltzale adoretsuari, maitasun-
ageřkaiz, eskeintzen diyo
idazti au

EGILEAK

BANAKETA

Antzeznotinak	Antzertilariak	
ARANTZAZU	Susaeta	anderea
PANTXIKE (50 urteko Kristobal'en mirabe-giltzaya)	Arzelus	"
MARGARI	Irigoyen	"
ISABEL (Margari ta Imanol'en ama)	Areitioaurtena	"
SABIN	Beorlegi	jauna
KRISTOBAL (Sabin'en aita)	Etxeberia	"
IMANOL	Muxika	"
SABINTXO ((Sabin ta Arantzazu'ren semetxoa: amař urtetik berakoa)	Zabalbeazkoa	"
TXOMIN	Urkitza	"
DIRU-ETXEKO OTSEIÑA	Agote	"

LENENGO ATALA

AGEĒTOKIAN. -idazkola bat. Izango ditu gutxienez iru ate; kalerako, olarako ta etxe-baĕen'erako. Leyo bat edo bi. Urutizkiĕa, orma edo mai gaĕean.

LENENGO AGEĒALDIA

Pantxike (bakaĕik).

PANTXIKE. (Autsak kenduaz idazkola apaintzen ari da.)
Gaur, bizkoĕ-bizkoĕ ibili beaĕa det, ordu bi'tako bultzian Tolosa'ra joateko, nere ilobatxo-aren batayora..... ĩsoĕeko, beĕia garaiz ekartzen badirate!; ba, ez det etxian itxurazkorik, ta, jakiĕa da, nere eĕira txukun-xamaĕ ageĕtzia gustatzen zait..... ĩZertan ote dago Arantzazu!..... Atzo agindu ziran gaberako etxean izango nuela: baĕan gaua igarota ere ez da agiri nere soĕekoa... Afitzekoa da, ain txintxoia izan da agindu ziran bezela ez egitea!..... (Ate-deya entzuten da.) ĩNere soĕekoa ote da!..... (Joaten da atea irikitzera.)

BIGAĒEN AGEĒALDIA

Pantxike ta Arantzazu : gero Sabin.

PANTXIKE. (Atean.) Auĕera, auĕera.

ARANTZAZU. Ara emen soĕekoa.

PANTXIKE. ĩZeroĕek dakaĕzu?

ARAN'TZAZU. Ez nuen zeĕĕekin bialdu, ta neronek ekaĕi beaĕ.

PANTXIKE. ĩOraintxe nintzan ezaten, zer gertatu ote zaizun!

ARANTZAZU. Badakizu Pantxike, etzaitala gustatzen bakaĕik etoĕtzerik, beaĕ-beaĕekoa izan ezik; ta orain ere ori gertatu zait. Banekian zu estu arkituko ziĕala, ta aĕtetsu jaĕtzeaĕen etoĕi naiz.

PANTXIKE. Eskartzen zaitut.

ARANTZAZU. Mantala ere bialduko dizut aĕatzalderako.

PANTXIKE. Ongi da. Ordu bi'tako ¿e?

ARANTZAZU. Bai. bai; ta banua, Kristobal jaunak ikusi baño len.

PANTXIKE. Ez da etxian.

ARANTZAZU. Dana-dala, banua. (*Abiatzen da.*)

SABIN. (*Bañenen: olarako ate aldetik.*) ¡Pantxike!

PANTXIKE. (*Arantzazu'ri.*) Sabin datoñ : Itxoin puxka bat. (*Olarako ateruntz joanaz.*) ¿Zer da, Sabin?

SABIN. (*Agertuaz.*) Bostetan dala batayoa. (*Arantzazu ikusiaz.*) ¡Arantzazu emen!

ARANTZAZU. Bai; zuk uste gabe, noski.

SABIN. Ala da. ¿Zer diozu?

ARANTZAZU. Ondo. ¿ta zu?

SABIN. Txit ondo.

ARANTZAZU. Ba, Pantxikek Tolosa'ra joateko beañ zuen janzkiya ekañtzera etoñi naiz.

SABIN. Pantxikek ez du nai zuk jositako soñekoak baizik.

PANTXIKE. Neretzat ez da jostun azkañagorik.

ARANTZAZU. Eskeñikasko.

PANTXIKE. Nayago nuke nik orain ere lenago bezela jostera etxera etoñiko balitza.

SABIN. Bai bañan..... badakizu ba.....

PANTXIKE. Ta, ¿zer dala ta egon beañ du zure aitak oñela Arantzazu'ren aurka?

SABIN. ¿Ez al-dakizu?

PANTXIKE. Ez dakit ba nik.....

ARANTZAZU. Ez da azterketa aundi beañik ori jakitzeko! Sabin'en aita..... aberats eta aundiki zalea da..... eta nik ez det oñelakorik.

SABIN. Neretzat ez da iñor arkitzen zu baizen aberatsik.

ARANTZAZU. Eskañtzen zaitut, Sabin.

PANTXIKE. Bai: entzun diot nik ere Kristobal jauna'ri «Arantzazu ez dala Sabin'i egokitzen zayon mañakua».

ARANTZAZU. ¡Ai, Pantxike! Gauñ egunian, ñaisteñ aldatzen dira mañak : gauñ gorengo mañan arkitzen diranak, arñitu litezke bigañ berengo-an.

PANTXIKE. Bai, Arantzazu : eñasoñ aundiya dezu. Aberastasunean añokeriz esagutu ditugunak, ikusi ditugu txirotasun ta landeñeri'ra erortzen.

- SABIN. Ori egunero ikusten degu gizar-tean. Ta, gañera. ¿Zer dela ta joan bear du nere aitak aundiki-ondoren? ¿Zer zan bera ere orain urte gutxi dala? Langile bat.
- ARANTZAZU. Langintzatic naguzitza'ra zintzotasunez iriztea, omengari da.
- SABIN. Ofegatic bada, berak ere ez lioke begiratu bear zure izakera ta landetasuna'ri, baizik, zure zaletasun ta zintzotasuna'ri.
- PANTXIKE. Ori da; ekandu garbi ta ontasuna'ri.
- SABIN. Zure ontasuna, zure bañengo zintzotasuna aberatsagua da ure ta zilara'ren jabetasuna baño.
- ARANTZAZU. (Apalki.) Ez dakit nola agertu nere biotzezko eskarpena zure itz estitsu ta maitekoak entzun ondoren.
- SABIN. Ba..... biotzez maitatuaz.
- ARANTZAZU. Nere maitasun guzia zugar dago.
- SABIN. Ez det bada besterik bear.
- PANTXIKE. (Biotzez.) Bai, gaxuak, bai : zuek biyok Jaungoikoak bata-bestiarentzat egiñak zerate.
- SABIN. ¿Ala ote da, Pantxike?
- PANTXIKE. ¡Zango ez da ba! Gañera. ¿dirua al-da ba zoriona dakarkiguna? ¿Ez al-da ontasuna dirua bezin onegarria?
- SABIN. Bai. Pantxike : Leon'dar Koldobika aba'k dirauzku : «Andre on bat ez da andrea, aberaskitza bat baizik: ta emastetzat artzen duen gizonak ez du beste bearik aberatsa izateko».
- PANTXIKE. Ba, ofela izanik ¿ez al-diole guziak begiratu bear ontasunari diruari baño geyago'?
- SABIN. ¡Érasoya!
- PANTXIKE. ¡Jakiña da!..... Bañan, zoritxarez zer gertatzen da? : asko dutenak geyago nai :aberatsa danak aberatsago nai.
- ARANTZAZU. Eta ezin inoiz ere iritxi diru-naitasuna'ren muga'ra.
- PANTXIKE. ¡Ori da ba! : amar ba'ditu ogei nai, eun ba'ditu befeun nai : eta. beti ofela, goratu nayan, bestearen gorapenai amofuz begiraka.
- SABIN. Ori da itz-egitea, Pantxike.

PANTXIKE. Egi utsa.
 ARANTZAZU. Bai, ala da. (Jeikiaz.) Ta joan egin beař det.
 PANTXIKE. Ia, ainbat laisteren etořtzen zeran nere etxekoandre izateko.
 ARANTZAZU. ¡Jaungoikuak nai badu!.....
 SABIN. Bai, bai; laister izango da.
 PANTXIKE. ¿Limurtuko al-degu aita?
 SABIN. Aleginduko gera.
 PANTXIKE. Bai nere aldez.
 SABIN. (Gogoratuaz.) ¡A!..... Arantzazu.
 ARANTZAZU. ¿Zer da, Sabin?
 SABIN. ¿Ba'dakizu ze jai degun igandean?
 ARANTZAZU. Ez naiz gogoratzen.
 SABIN. Ba, mutikoen eri-abesti batzaldia.
 ARANTZAZU. ¿Igandean al-da?
 SABIN. Bai: goizeko amaiketan, antzoki naguzian. Ta, oso polita izango da. Ari naiz ni ere abeslari-talde bat gertuzen.
 ARANTZAZU. Ba, oyek irabaziko dute sariya.
 SABIN. Ori, igandean ikusiko da. Gañera, izango degu euskeraz idatzi ta irakuřtzea; ta baita danbolin jotzalen azterketa ere.
 PANTXIKE. ¿Ni joan al-niteke?
 SABIN. Bai, Pantxike : nik eramango dizut sarbidea, patxadan eserita egotekua.
 PANTXIKE. ¿Bai? joan beař degu ba.
 ARANTZAZU. Ari ta ari, gure izketaldia luzatu egin da, ta banua.
 SABIN. Laister arte. Arantzazu.
 ARANTZAZU. Bai, Sabin; gero arte.
 PANTXIKE. Agur..... maitagari.
 ARANTZAZU. Agur. Pantxike. (*Joaten da.*)

IRUGAREN AGERALDIA

Sabin ta Pantxike.

PANTXIKE. Ori da neskatxa, ori.
 SABIN. ¿Atsegin duzu?
 PANTXIKE. ¡Izango ez da ba! Etxe ontan ez da sartu ořen antzekorik ere.

SABIN. Atsegin zait ori entzutea.
PANTXIKE. Ba. biotz-biotzez esaten dizut.
SABIN. Sinisten dizut.
PANTXIKE. Eta..... badakizu; aunditasun gabea, diru gabea, ta landef ta umezurtza izan afen, ez dezula beste bat bilatuko zuri obeto dagokizunik.
SABIN. Ni ere ofetan naiz. ¡Margari afoxko bañon bestelakua!
PANTXIKE. ¡Ene bada! ¡Ez dedila gero sartu etxe ontan emakume afo ta andiputz ori!
SABIN. Nik ere ez nuke nai; bañan. ¡zeñek limurtu nere aita!
PANTXIKE. Ni aleginduko naiz.
SABIN. Alpefik izango da. Nere aita. Margari'ren janzki apain, ta bere sendiak dituen *gatzelu* aldeko *pergamiño* zañak txoraturik daukate.
PANTXIKE. ¡Aritzekua da!
SABIN. Bai. (*Deya. Joaten da Pantxike atea irikitzera.*)
PANTXIKE. Emen daude mutil koxkoñak.
SABIN. Sañtu ditezela.

LAUGAREN AGERALDIA

Lengoak eta lau edo sei mutiko (1).

MUTIKOAK. Egun on.
SABIN. Tira mutiñak, auñera.
PANTXIKE. Ondo ikasi beañ, dezute gero: igandean sariya irabasteko.
MUTIKOAK. Badakigu.
PANTXIKE. Besteak ere gogor ari omen dituk.
MUTIKO BAT. Berdin izango da. Guk bezin ondo ez dute abestuko.
SABIN. Orain ikusiko da nola egiten dezuten. ¿Ekañi aldituzute paperak?
MUTIKOAK. Bai jauna.
SABIN. Tira ba, lenbizi *Txeru*, (Edo beste eñi-abesti bat.) (Abestutzen dute Sabin'ek arteztuaz.)
PANTXIKE. Edeñki: ¡bapo!

(1) Egokitzen dan besteko talde bat.

SABIN. ¿Ondo al-dago. Pantxike?
PANTXIKE. Obeto ezin.
SABIN. Tira ba. Orain bestea. (Abestutzen dute San
Juan de la Portaletaña edo beste bat.)
PANTXIKE. ¡Ori dek abestutzia!

BOSKAREN AGERALDIA

Lenguak eta Kristobal.

KRISTOBAL. (*Olarako atetik.*) ¿Zer darabizute? ¡Betiko bezela
txorakerietan orduak igarotzen! (*Juaten da
Pantxike.*)
SABIN. Ez aita : nik ez det uste txorakeria danik gure
aberiaren alde zerbait egitea.
KRISTOBAL. ¿Zertan ai ziñaten bada?
SABIN. Mutil koxkor abei eri-abestitxo batzuek
erakusten, datoñen igandean ondo abestu
dezaten.
KRISTOBAL. ¿Ze jai dek ba igandean?
SABIN. «Euskaltzale Lagundi'ak» eraldu duen euskal-
jaya.
KRISTOBAL. ¡Ba, ba!..... len esan detana : txorakeriak.
SABIN. (*Mutikoei.*) Mutilak : gaurko naikoa dezute.
KRISTOBAL. Baita biyañko ere.
SABIN. Zuazte orain. (*Juaten dira mutikoak agur tuaz.*)
KRISTOBAL. ¡Ori dek!.....Txorakerietan igaro ainbeste ordu,
ta idaskolako lanak atzeratuta.
SABIN. ¿Nere lanak atzeratuta? Ez det uste.
KRISTOBAL. Bai: ta badakik, lenbizi etxeko gora-berak eraztu
beañ ditukala.
SABIN. Oñetan naiz : ta zerbait bada, beriala egingo det.
KRISTOBAL. Ba, joan da ikusi zer egin beañ dan.
SABIN. Beriala egingo det.
KRISTOBAL. Ori dek ire egin beaña. (*abiatzen da Sabin.*)
Itxoik puxka batean. Beste gauzatxo bat esan
beaña diat.
SABIN. (*Apal.*) Nai dezuna. aita.
KRISTOBAL. Entzun diat emen izan dala Arantzazu umezurtz
ori.
SABIN. Bai, aita, emen izan da.

KRISTOBAL. Ba.... zentzuna duen gizonak, ez liokek eman bear asierarik egipenari, auzer ongi oldoztu gabe.

SABIN. Egia da.

KRISTOBAL. Ta, ik ¿oldoztu al-dek ongi, neskatxa oren'gana joan baño len?

SABIN. Bai, ta benaz.

KRISTOBAL. Ta. ¿Zer uste dek?

SABIN. Ba.... egia esateko, gaur nitzan zuri eskari bat biotz-biotzez egiteko ustean.

KRISTOBAL. ¿Zer eskari?

SABIN. Ezkontzeko baimena.

KRISTOBAL. Iri dagokidan bezelako neskatila batekin nai badek, ez dek izango eragospenik.

SABIN. ¿Ez al-da ba Arantzazu itxurazkoa ta egokia?

KRISTOBAL. ¡Egokia!.... Bera bezelako txatxa ta lander baterentzat!

SABIN. (Suminduta.) Arantzazu'ren egikera ta izakeragatik ez du inork zer esanik izango.

KRISTOBAL. Bañan, ¿ze uste dek ik? Nere seme bakaña edozeinekin eskonduko dala?

SABIN. Arantzazu ez da *edozein*; bañan bai beste edozein bezin egokia. ¡Beartsu arkitzen dala! ¡diru gabea dalal!.... Ez du beste zer esanik; ta nik uste det, ez diogula begiratu bear aberastasunari, zintzotasunari baizik.

KRISTOBAL. Badek beste neskatila bat. Arantzazu bezin zintzoa, ta iretzat omengariagoa izango dena; ta begiratu ondo, oldoztu ondo ta lenbait-len ze bide artu bear dekan, aita'ri naigabe minkor bat ematea nai ez badek.

SABIN. Nere ustez, nere gogoz, ez nuke nai nere aita naigabetutzerik; eta oregatik, Arantzazu'ri itzemandu daukatelako, biotz-biotzez eskatzen dizut baimena; ta mesede oregatik zu maitatzen ta bedeinkatzen igaroko det nere bizitza guzia.

KRISTOBAL. (Biziro ta dañdaraz.) Bañan.... ¿txoratuta arkitzen al-aiz, umezurtz eta txakur txiki baten jabe ez dan neskatxa batekin ezkontzeko baimena neri eskatzeko?

SABIN. Ez aita : zentzudun ta benaz otoitzen dizut.

KRISTOBAL. Ez dek bada loftuko..... Muker ta setatsuori!.....
 ¡Ken ari nere auřetik!

SABIN. ¡Aita!.....

KRISTOBAL. ¡Lanera!..... (*Abiatzen da Sabin.*) Datofela
 Pantxike onea. (*Joaten da Sabin apalki olarako
 atetik.*) ¡Zentzugabeko ume txatxuok!..... ¡Utzi
 beařko diok neskaxa ori!

PANTXIKE. ¿Zer nai dezu, naguzia?

KRISTOBAL. Atoz onea. ¿Emen izan omen da ethezuri'ko ume
 zurtz ori?

PANTXIKE. Bai jauna : ta..... neskabila egokia.

KRISTOBAL. (*Asaře.*) Ez dizut galdetzen egokia ala baldařa
 danik. ¿Zertara etori da?

PANTXIKE. Ba..... janzki batzuek ekařtzera. Ez omen zuen
 zeiņekin bialdu ta.....

KRISTOBAL. ¿Ze janzki dira oyek?

PANTXIKE. Neretzat egiteko agindu nion soņekoa.

KRISTOBAL. ¿Ez al-dezu beste jostunik eřiyan?

PANTXIKE. Ba..... Bera izan da, bost urte onetan nere
 jostuna ta..... egiya ezateko, ez dago neretzat
 bera baizen azkařik.

KRISTOBAL. ¡Zaude ixilik! ¡Ezer ez duen umezurtz kaxkař ori!

PANTXIKE. Bai; umezurtza da gaxua..... baņan.....

KRISTOBAL. Ba, zure kontu : Zuk zaindu beař dituzu.
 Begiratu ondo beren maitasunak ze bide
 daraman.

PANTXIKE. Ez da begiratu beařik.

KRISTOBAL. ¡E!..... ¿Ze uste dezu? ¿Nere semia ta neskatx
 ximel ori mařa batekoak dirala?

PANTXIKE. ¡Ez dakit ba nik! : mařa konturik ez det aditzen
 da.

KRISTOBAL. ¡Ze aditu beař dezu zuk!..... Margari da Sabin'i
 egokitzen zayon andre-gaya.

PANTXIKE. Ba. Sabin'ek ez du nai besterik, Arantzazu
 baizik.

KRISTOBAL. ¡Beařko!

PANTXIKE. Baņan..... ori da ba....

KRISTOBAL. ¿Zer?

PANTXIKE. ¡Ezer ez!..... ez dala gauz-onik egingo, txařean
 asi ezkerro : ta ofela guztiok izango gera gaizki.

KRISTOBAL Gaizki nai ondo.
PANTXIKE. Bañan..... ¿nola nai dezu ba, berak nai ez duenakin ezkontzea? Maitasun gabeko ezkontzak, ez du sustrairik, ez sendagafirik : ta badakizu, oñari gabeko etxeak laister joko du luña.
KRISTOBAL. ¡Befiketak dira oyek!..... Zuk egin zazu agindu dizutana. Zaindu ondo beren ibilkera guztiak; ta gero, eman neri kontu garbiyak.
PANTXIKE. Ondo da.....
KRISTOBAL. Ta..... ¡jixo!..... ez esan se agindu eman dizutantik.
PANTXIKE. Ez jauna.
KRISTOBAL. ¡Ez gero txistik ere atera!
PANTXIKE. Ez, ez.
KRISTOBAL. Gero arte bada.
PANTXIKE. Agur jauna.

SEIGAREN AGEÑALDIA

Pantxike ta Sabin : gero Txomin.

PANTXIKE. (*Bakarik.*) ¡Abek istiluak!..... Sabin ta Arantzazutxo'en ibilkerak zaindu bear nik!..... Zainduko ditut bai; ta gogoz zaindu ere, eragospelik izan ez dezaten beren asmoak betetzeko..... ¡Amaika eragabekeri ikusten da ludi ontan!.....
SABIN. (*Olarako atetik.*) ¿Zer degu, Pantxike? Izdun arkitzen zaitut.
PANTXIKE. Bai, Sabin, bai. Añituta nago.
SABIN. ¿Zer dezu ba?
PANTXIKE. Zure aidak ez du nai Arantzazu'ren loñatzik ere.
SABIN. ¡Ta zer egingo diogu ba!
PANTXIKE. Gañera, ez dakizu beste gauza bat.
SABIN. ¿Zer?
PANTXIKE. Ez nuke esan beař..... bañan, ¡ain asko nai dizut!..... ¡ixilik gero!
SABIN. Ixilpekua bada, luřpean egongo da.
PANTXIKE. Gaurtik, nere zaitasunpean izango zerate.
SABIN. Ez gera gaizki izango.

PANTXIKE. Ez, ¿e?
 SABIN. ¡Nola bada! Bi urte nintuan ezkeroz zu izan zera nere ama-ordeko, ta ontsua benetan.

PANTXIKE. Bai bañan, orain zaindari izango naiz: zu ta Arantzazu zaindu, zuen ibilkera guziak azterkatu, ta gero, nere azterkuntzaren kontu garbiyak eman zure aita'ri.

SABIN. ¿Agindu ori eman al-dizu aitak?
 PANTXIKE. Bai. ¡Ez esan gero berari!
 SABIN. Ez, Pantxike : ta eskerikasko zure nereganako uste-onagatik.

PANTXIKE. Ni beti izango naiz zure alde.
 SABIN. Ba, zuk ere badakizu, ama bezin maite zaitutala.
 PANTXIKE. Kontuz ibili bada. Sabin.
 SABIN. Bai, bai : ez izan ardurarik. Arantzazu ta ni ez gera ibiliko bear ez dan bideetatik, eta ez dezu gure eruz zer-esanik izango.

PANTXIKE. Ala uste det; biyok zerate onak eta.....
 SABIN. Arantzazu neretzat eta ni Arantzazu'rentzat.
 PANTXIKE. ¡Izango ote da ba!
 SABIN. Bai, bai; ořetzaz ez det ezpairik. (*Etortzen da Txomin olarako atetik.*)

TXOMIN. Txuřuka jauna etoři da ola'ra, ta aita etxian ez-bada zu juateko lenbait-len, esan dit.

SABIN. Bai: beriala noala, (*Juaten da Txomin.*) Badakizu ba, Pantxike. Neretzat Arantzazu, besterik ez.

PANTXIKE. Ondo egingo dezu.
 SABIN. Ez degu beař etxe ontan Margari bezelako andiputzik.

PANTXIKE. Ez, ez; ¡Jainkoak aparta!
 SABIN. Gero ařte. (*Joaten da*)
 PANTXIKE. Bai.

ZASPIGAŘEN AGEŘALDIA

Pantxike (bakařik).

PANTXIKE. !Auxen da ba!..... Ez nion ezeř esan beař : bañan, alpeřik..... ¡Emakumeak beti emakume!..... ezin lotu mingaņa. ¡Bai! ¡ez gera jayo apaiz izateko! ¡pekatari gaxuak! ¿Emakumeak eduki ixilik aitořpenian aitatu ere? ez..... Ořegatik ez degu emakumeak Eleizako gora-beraetan eskubiderik. ¡Ondo

zekiyan, bai, esan zuenak : «Emakumeak eleizan ixilik!» ¿Bestela? ¡a ze izketaldiak entzun bearko zinduzketen gizonak! (*Deya.*) Banua. (*joaten da atera.*)

ZORTZIGAREN AGEÑALDIA

Pantxike, Isabel ta Margari (1).

- ISAB.-MARG. (*Sartuaz.*) Egun on. (*Añoxko ta andikeriz itz egingo dute.*)
- PANTXIKE. Ala ekañi.
- ISABEL. Tira. aítu *kaba* ta *abriguak*.
- MARGARI. Tori. (*Isabel'ek kaba ta abrigua, ta Margari'k abrigua ematen dizkate, ta Pantxike ayek artuta aboa zabalik gelditzen da.*)
- PANTXIKE. ¿Neretzat al-dira?
- ISABEL. Emakumea, jaso itzazu bear dan lekura.
- MARGARI. Zuk ez dakizu nola eñezibitzen diran señoñrita aundikiyak.
- ISABEL. ¡Abek neska atrasatuak! (*Pantxike'k alki baten gañean uzten ditu emandako gauzak.*)
- PANTXIKE. Izututa gelditu naiz zuek ikusteaz. Printzeza bat zetoñela iruditu zait.
- MARGARI. (*Oso pozturik.*) ¿Bai, e?
- ISABEL. ¿Ala dirudi, e?..... Nere alaba da.
- PANTXIKE. Bai; ezin ukatu : mingañean dezute ezagun.
- ISABEL. ¿Mingañean! ¿Ikusi al-dirazu?
- PANTXIKE. Mintzaeran esan nai nuen.
- MARGARI. ¡A..... bai! Izketako moduak asko erakusten du norberaren bikaintasun ta gailentasuna.
- ISABEL. Orain *zepilo* bat ekañi, ta poliki-poliki autsak kenduaz garbi-garbi ta apain-apain jañi beař dizkiozu janzki edeñ oyek.
- PANTXIKE. Garbi ta apain daude orain ere janzki oyek.

(1) Isabel eta Margari'ren ifigañitzať jařtzen dira erdarazko itz batzuek.

MARGARI. Ez; ni ořetan pinpilinpauxa bařo *delikadiagoa* naiz; garbi ta txukun presentatzia gustatzen zait; eta nere Sabintxo etofi bařo-len apaindu bear det.

PANTXIKE. (Atzeko aldera joanaz.) (Beregain.) ¡Nere Sabintxo! ¡Ařapatuko den!

MARGARI. Zaude : lenbizi basotxo bat ur ekaři bear dirazu, esponja'kin, aoa legořtu zait eta. (Margari eskulařuak kentzen asten da.)

ISABEL. Ura bakařik ez; gaitz egiteko ere. Ara: jerez'akin nastuta ařtuko du. Ořela oituta dago.

PANTXIKE. Ba, gure etxean dagon jerez'ik et du ařtuko.

ISABEL. ¿Ez al-dezute? ¡A!..... Ořelako gauzak beti ařkitu bear dira etxean.

PANTXIKE. Guk sargařdua edo txakoliņa.

MARGARI. ¡Ene!..... Edari ordinariyoak dira oyek.

ISABEL. Ez gaude oituta.

MARGARI. (Esku-lařuak kendu ta eskuai begira.) Ekaři zaidazu beintzat eskuak garbitzeko ura.

PANTXIKE. ¿Esponja'kin bear al-du ori ere?

ISABEL. (Asaře.) Barkiřua'kin bear du.

MARGARI. (Oso asaře, esku-lařuak beřiro jařiaz.) Ez det ezer ere bear.

ISABEL. Entzun dezu : ez ta ezer ere. (Beregain.) ¡Neska baldana! ¡Qué ignoranzia! (Margari'ri.) Nere printzeza : eseri zaite. (Biyak eserita : ixil aldia.) ¿Etxean izango dira seřorituak? (Pantxike'ri.)

PANTXIKE. Ez bata ta ez beztia.

ISABEL. ¿Ez dirala etxean?

MARGARI. ¡Otro tanto!

ISABEL. ¿Non dira ba?

PANTXIKE. Ez dakit. Nagusia kalera atera da, ta Sabin..... ez dakit non izango dan.

MARGARI. Gure bila joango ziran.

ISABEL. Baliteke.

MARGARI. Bai, bai : jakiņa da. Orain da trena etořtzeko ordua, ta estaziora joango ziran, ta gu automobilian etofi.

ISABEL. ¡Eřasoya dezu!

MARGARI. ¡Klaro!

PANTXIKE. (¡*Abek emakumeak!*)

ISABEL. *Petardua* eraman beař dute.

PANTXIKE. (*Bai zuek.*)

MARGARI. Bañan gero, etořtzen diranian *sorpresa* ere aundiagoa izango da.

ISABEL. Poztuko dira gu automobilian etořtzeakin.

MARGARI. ¡Ya lo kreu! (Pantxike'ri.) Ta zuk, zabiltzan baño zuzenago ibili beařko dezu.

PANTXIKE. ¿Zuzenago? Okerka al-nabil ba?

MARGARI. Bai; ikusiko dezu, zure señorita izateko etořtzen naizenian.

PANTXIKE. (¡Jainkoak aparta!.....) Ta..... ¿Laisteř izango alda?

MARGARI. Bai : Kristobal jaunak esan ziran udaberirako geřtuko gerala. Garai ořtan ezkontzen dira aristokraziakoak.

PANTXIKE. ¡Aristokraziakoak!..... (*Gogoraziaz.*) Ez ditut ezagutzen. (*Margari ta Isabel pařez.*) ¿Zuen eřitařen batzuek al-dira?

ISABEL. Onek ez daki zer diran aristokraziakoak.

PANTXIKE. ¿Zer diran?..... Ezkondu beař badute, neska-mutil ezkongayak.

MARGARI. ¡Ez, ez, ez!..... Aristokraziakoak deitzen zaye, gu bezelako aundikiyei; jente grandezakoei : orain, baita deitzen zaye jente bien.

PANTXIKE. ¡Bien!.....

BEDERATZIGAREN AGERALDIA

Lengoak eta Arantzazu.

ARANTZAZU. (Sartuaz.) ¿Bada baimenik? (Gelditzen da.)

PANTXIKE. (Orain kontuak!) Auřera, Arantzazu.

ARANTZAZU. (Isabel ta Margari'ri) Egun on dezutela. (Isabel ta Margari, erantzun gabe, zerbait apaintzen edo.)

PANTXIKE. (Arantzazu'ri maitekoř itz-egiñaz.) Baita zuk ere. Zu, agindu dezun bezela, txintxo-txintxo. Eseri zaite, eseri Arantzazu. (Arantzazu lotzaz.)

MARGARI. (*Antuztez.*) ¡E!..... ¡Gu emen gaudela esaten diozu eseritzeko!..... ¿Ori al-da edukazioa?

PANTXIKE. ¿Non eseri bear du ba?

MARGARI. Sukaldean, sukaldean..... neskatzak sukaldean.

ARANTZAZU. Eragozten badizutet.....

PANTXIKE. Ez, Arantzazu, ez. (Margari'ri.) Au, beronen zeregin bat betetzera etofi da.

ISABEL. Neskameen zeregiñak..... sukaldean.

ARANTZAZU. ¿Gaizki egin al-dizutet?

MARGARI. Gaizki egiten dezu, gu gauden bitartean emen gelditzeaz.

ARANTZAZU. Barkatu bada.

MARGARI. ¡Ze barkatu!..... Ikasi Señoritak tratatzen.

PANTXIKE. Jakin beař dezute, au ez dala neskamea : au, *señorita* da.

ISABEL. ¡A!.....

MARGARI. ¡Ola!.....*señorita* e?..... badirudi bai, ¡panpoxa dago!..... (*Burlez.*)

ARANTZAZU. (*Erdi negařez.*) ¡Bañan, zer da au!..... ¡Gauza oyek entzun bear!

PANTXIKE. Ez izutu, maite.

ARANTZAZU. ¡Etxe ontan iseka egin neri!..... ¡Non da nere Sabin!

MARGARI. ¡Oil!..... (*Altxatuax ta iseka egiñaz.*) ¡Nere Sabin!
¡Bere senař-gaya balitz bezela!

PANTXIKE. Ta ¿zeřatikan ez? Ori, Sabin'ek jakingo du.

ISABEL. ¿Zer diozu? (*Jeikiaz.*)

MARGARI. ¡Ja, jai!..... ¿Biyokin ezkondu beař al-du?

ARANTZAZU. (Gogoz ta benaz.) ¡Sabin neria da!

AMARĜAREN AGERALDIA

Lengoak eta Sabin : gero Kristobal.

SABIN. (Ola'rako atetik.) ¡Zer da au!.....

ISABEL. !Ola. Sabin!

MARGARI. ¡Atoz, Sabin!

SABIN. (Arantzazu'ri begiratuaz.) ¡Zer gertatzen da emen! ¡Arantzazu negařez!

PANTXIKE. Garai egokian etofi zera.

MARGARI. ¿Ez diguzu ezer esaten?

SABIN. (*Arpegi ilunaz*) ¿Zer du Arantzazu'k? (*Margari ta Isabel arkitzen ari dira.*)

ARANTZAZU. Ofentzat ala neretzat zeran jakin beařian arkitzen naiz.

PANTXIKE. Banua ekaitzak arřtu bařo len. (*joaten da.*)

SABIN. ¡Arantzazu! Ez ofetaz ezpairik izan. ¿Zer esan dizute?

ARANTZAZU. Ateratzeko emendik.

MARGARI. Ez. Edukaziorik ez duela esan diot : eta beřiro ere esango diot.

ISABEL. Bai *por zierto*.

SABIN. Arantzazu'k ez du zuek ezer erakutzi beařik.

MARGARI. ¿Sabin?.....

SABIN. ¡Zuek nere emaste-gaya, nere etxetik atera nai!

ISABEL. ¡Zer da au!

MARGARI. ¡Ene bada!..... ¿Burutik egin al-zayo?

SABIN. ¿Neri burutik egin?..... ¡Zuaz emendik urřti!
¡Etzaitut ezertarako beař!

ISABEL. ¿Ori esan nere alabari? ¡Bere ondoren ibili ta gero!

SABIN. ¿Ni ofen ondoren?..... Zuek zabiltzate aspaldi ontan ardi-gosia artzai ondoren bezela.

MARGARI. (*Suminki ta negařez.*) ¡Ori ere esan!

ISABEL. ¡Lotsagabea! ¡*Insolentia!*!

MARGARI. Jauregizařeko nagusia'ren alabari!

SABIN. ¡Zuaz emendik!

ISABEL. ¿Zer zera zu, *ařlote* bat baizik, gure jatofi ta goitasunakin beřdintzeko?

SABIN. ¡Zuazte beriala, zuen jatofi ta goitasun guziakin!

ISABEL. (*Ateruntz abiatuřik, len utzitako kabas eta gainerakoak arřtuta.*) ¡Bai, bagoaz! Bařan ¡damutuko zaizu!

MARGARI. (*Atetik.*) ¡lotsagabea!

ISABEL. (*Atetik.*) ¡txotxolo!..... ¡¡Petrala!!..... (*joaten dira.*)

SABIN. (*Atea itxi bařo len.*) ¡Ez ditezela geyago nere begi-aurean jaři!

KRISTOBAL. (*Bařendik.*) ¡Zeř da! ¡Zeř da!

ARANTZAZU. (*Añituta.*) ¡Ene bada! ¿Zer egingo det nik orain?..... ¡Zure aita da!

SABIN. Ez ikaratu.

KRISTOBAL. (*Bañendik.*) Atozte nerekin.

ISABEL. (*Bañendik.*) Ez gera geyago sañtuko etxe ortan.

MARGARI. (*Bañendik.*) ¡Jauregizañeko alaba etxetik atera!

ISABEL. ¡¡Añlote lotsagabea!!

ISABEL. (*Nora joan ez dakiela.*) ¡Ni banua! ¡Ai ene!

KRISTOBAL. (*Ageñtuaz asañe.*) ¿Zer geñtatu da emen? ¿Zer egin dezute? (*Zematuaz.*)

SABIN. Aldi ontan ezin nezaken beste gauzarik egin.

KRISTOBAL. ¡Margari atera ik nere etxetik! ¿Ba-aldek ik ori egiteko eskubiderik? (*Arantzazu'gatik.*) Au dek etxe ontatik atera beañ dana.

ARANTZAZU. ¡Jauna!.....

SABIN. ¡Aita! ¡Mesedez eta onbidez!

KRISTOBAL. (*Arantzazu'ri.*) ¡Kanpora! (*Arantzazu joaten da ataruntz negañez.*)

SABIN. ¡Ez, aita, ez! ¿Ni Arantzazu gabe? ¡Ez!

KRISTOBAL. Arantzazu'kin nai badek, badakik ze bide arñtu beañ dekan!

SABIN. Atsekabez ta lañi-aldiz beterik jañtzen dezu nere biotza!

KRISTOBAL. Autatu bada beriala : edo aita edo neskatxa ori.

SABIN. Badakizu, aita.....

KRISTOBAL. (*Erabakiz.*) ¡Bai: bazekiat. (*Atea erakutsiaz.*) Ara oñ iretzat ere atea zabalik.

SABIN. (*Burua makurtuaz.*) ¡Jaunak lagundu bezait! (*Abiatzen da.*)

PANTXIKE. (*Etxe bañendik ateriaz.*) ¡Zer da au!

KRISTOBAL. ¡Kanpora beriala!

PANTXIKE. (Kristobal'i.) ¡Barka zayozu Jauna!

SABIN. ¡Jaungoikuak barkatu bezayo! (Joaten da.)

PANTXIKE. ¡Sabin gaxua!

Lenengo atala'ren azkena.

BIGAÑEN ATALA

(Ageftokia len bezala.)

LENENGO AGEÑALDIA

Kristobal : gero Pantxike.

- KRISTOBAL. (*Mai-gañean egongo dan eñolda-idaztia ikustatzen.*) ¡Alpeñik!..... Auñetik asi, atzetik asi, beñdin-beñdin..... ¡Zortzi miñla laurleko'ren utskaria!..... (*Ixilik.*) Lau..... sei..... zazpi..... amabi..... amabost..... au ondo dago. (Beste oñira, begira.) Bi..... lau..... amañ..... amasei..... au ere gañbi dago. Bañan, betiko bezela, zoñak geyago añtzeakoak baño. ¿Nola izan liteke au?..... (*Deitzen dio Pantxike'ri.*)
- PANTXIKE. ¿Zerda?
- KRISTOBAL. ¿Etoñi al-da Imanol?
- PANTXIKE. Ez det ikusi.
- KRISTOBAL. Lenengo etoñi beañ lukena, azkenengo.
- PANTXIKE. Atzekuak ez dira iñoiz añduratuko etxequak bezela. ¡Dezun bezelako semia euki ta!.....
- KRISTOBAL. ¿Semia?..... ¡Ez banu bezela!
- PANTXIKE. Barkatu esan beañ; bañan, ori ez da kristau-legea!
- KRISTOBAL. (*Keskatuaz.*) ¿Zer nai dezu egitea?
- PANTXIKE. Badakizu, jauna; gauñ dala biñobatxoaren lenbiziko Jaun-añtzea. ¡Ze egun egokia!.....
- KRISTOBAL. ¡Utzi-dazu pakean, nere buru aztun au geyago nastatu gabel!..... Badet naikoa zer-egin!..... (*Beregan.*) Ta, Imanol ageri ez..... Neronek joan beañko. (*jeikitzen da.*)
- PANTXIKE. ¿Nik egitekoa bada?.....
- KRISTOBAL. Ez : beriala etoñiko naiz. Imanol etoñtzen bada ikustatu ditzala ondo idazti oñtako añtu-emanak. (*Joaten da olara'ko atetik.*)
- PANTXIKE. Ondo da.

BIGAÑEN AGEÑALDIA

Pantxike: gero Margari ta Isabel.

- PANTXIKE. (*Bakarik.*) ¡Au ez da bizikera! Etxe batekoak, sendi batekoak banatuta, bakoitza bere aldetik: eta kanpokuak nai duten guzia egiten..... ¡Ai, Sabin ta Arantzazu! ¡noiz etofiko ote zerate aita'ren ondora!..... (*Deya.*) ¡Ba! emen izango dira bear ez diranak!..... (*Joaten da atea irikitxera.*) Auñera.
- ISABEL. Ola neskatxa.
- MARGARI. Egun on.
- PANTXIKE. Baita zueri ere.
- MARGARI. ¿Emen izango da Imanol?
- PANTXIKE. Ez da etofi.
- MARGARI. ¿Oraindikan etofi gabe?
- ISABEL. Ta ¿Kristobal jauna?
- PANTXIKE. Ezta.
- MARGARI. Zori txaña degu.
- PANTXIKE. ¿Beař-beařekoa al-dezute?
- ISABEL. Bai ba : ařatzaldean ateratzen gera Sebila'ra joateko.
- PANTXIKE. ¿Sebila'raño?
- ISABEL. Bai, enetxua.
- MARGARI. Ori, urte guzietakua da : Mayatza-arte Andaluzi'an, gero Madrid'en; ta udara Biařitz eta Donostian.
- ISABEL. Kasinuan da..... sesenetan da.
- MARGARI. Sabin ta beste batzuek bezela, urte guzian emen mendi-tařtean zařtuta. ¡Zorionean ez nintzan ezkondu berakin!
- ISABEL. Bai *por zierto.*
- MARGARI. ¡*Me pareze!*
- PANTXIKE. Ba..... Sabin ta Arantzazu beren semetxoakin ondo bizi dira.
- ISABEL. ¡Bai! *Lo que es* zuk ayen alde egingo dezu.
- PANTXIKE. ¿Ta zergatik egin bear det kontra, neretzat onak izan ezkeru?
- ISABEL. Kristobal jauna da zuk *defenditu* bear dezuna.

PANTXIKE. Iñork bañon geyago egiten det bere alde, bear beañan arkitzen dalako.

ISABEL. Bai, ¡gaxua!

MARGARI. Eskeñak Imanol'i, beztela gaizki bear zuen Kristobal'ek.

ISABEL. *Ya lo kreo.* Nere seme Imanol'ek etzuen Kristobal'en administradore izan nai.

MARGARI. *Naturalmente.*

ISABEL. Badakizu ba, gu bezelako entzute aundiko famili bateko semeari etzayo egokitzen iñoren *enpliatua* izaterik.

MARGARI. Por supuesto.

ISABEL. Bañan. erukitu egin giñan, ta gure esana egiteañen etofi zan Kristobal jaunari laguntzera.

PANTXIKE. ¡Bai, bai, sinisten det!

MARGARI. ¿Laister etofiko al-da Kristobal?

PANTXIKE. Ez det uste.

MARGARI. Ba, joan egin bearko degu, *prisa* degu-ta.

ISABEL. (*Pantxike'ri emanaz.*) Au emango diozu Kristobal jaunari gure partez. Habana'tik tabakalera'ko presidentiak espresamente beretzat ekañitakoa da, nik aginduta.

PANTXIKE. Ongi dago.

ISABEL. Bagoaz bada.

MARGARI. Gero egingo degu *bueltatxo* bat al-badegu.

PANTXIKE. Esango diot.

MARGARI. ¡Adios! (Joaten dira.)

PANTXIKE. Aguf.

IRUGAÑEN AGEÑALDIA

Pantxike: gero Kristobal ta Imanol.

PANTXIKE. (Bakañik.) ¡Iñoiz ageñtzen ez badira obe! Bañan. etofiko dira bai! : batez ere..... señoñita txatxala ori! ta.....beti eñegalotxuakin..... ¡bai, bai! ¡badakite zeñ egin beren alde!.....bat ekañi, amañ eramateko! Ta, ¡nik ixilik egon beañ!.... ¡Imanol nere naguziaren diru-zaya dala ta!.... ¡Ai, ai, ai! Diruzaytza ofek *oñastuta* utzi beañ du laister

- Kristobal jauna!..... ¡Ixo!..... emen dira.....
(*Kristobal ta Imanol ola'rako atetik.*)
- PANTXIKE. (*Kristobali.*) Andre Isabel ta Margari izan dira. Au utzi dute zuri emateko; ta etoñiko dirala gero al-badute.
- KRISTOBAL. (*Gogalditxara du.*) Ondo da. (Joaten da Pantxike.)
- KRISTOBAL. (*Imanol'i, efolda-idaztia irikiaz.*) Nik ezin det uleñtu nola izan liteken au. Lan asko degula buñni-olan, asko irabasten dala: ta, ala-ere diru-utskaria. ¿Zer dizkiozu?
- IMANOL. Ba: asko irabasten dala, bañan geyago ondatu.
- KRISTOBAL. Ta ¿nundik datoñ ondamedi ori?
- IMANOL. Nik ez dakit ba.....
- KRISTOBAL. Ba, diru-zaya zeran ezkeru, zu zera beste iñork bañon obeto jakin bear dezuna.
- IMANOL. (Musu ilunaz.) Beraz ¿zerbait susmatzen al-dezu nitzaz?
- KRISTOBAL. Susmatu..... ¡ez dakit ba nik!..... zu zerana bai buñni-olako gora-bera guzien kontua garbi eraman bear dezuna.
- IMANOL. Bai, egiya da : nere arazoa da ori. Bañan, ez dirazu ukatuko nik alegin guziak egiten ditutala al-danik ondoen eramateko; ta au egiya dan ala ez, auñean dezun «banaketak» erakusten dizu.
- KRISTOBAL. ¿Nor izan liteke bada eñdun?
- IMANOL. Eskutuz dabilen gaiztagileen bat.
- KRISTOBAL. Ta zuk ¿ez al-dezu iñoren susmorik?
- IMANOL. ¡Susmoa.... Ageñbiderik ez det, bañan... zerbait...
- KRISTOBAL. ¿Noretzaz?
- IMANOL. Dakizun bezela, zure semia da emengo gora-bera guzien beñi ondoen dakiena : ta... nik, iñoiz aitu det, Sabin'ek esana dala, bera etxetik kanpora ateratziak izango duela noizbaitian ordainpena.
- KRISTOBAL. ¿Egiya al da ori?
- IMANOL. Nik ala aitu det.
- KRISTOBAL. ¿Nola izan liteke bañan? Egunero entzuten det

nere semia bezelako gizonik ez dala: bere aitaganako maitasuna aundiya dala, eñi guziak maite duela; Ta nere ondora ekañi beañ nukela!; ta orain, zuk, ¿ori diozu?

IMANOL. Nik ere, entzun detana. Badira, bai, asko, zure semia goraldtu nai dutenak, bañan ez guziak.

KRISTOBAL. Gañera, dakizun bezela, nere semia ez da sañtu etxe ontan ezkondu ekeroz, ¿ezta sañtuko ere!, ta ¿nola izan liteke zuk diozuna?

IMANOL. Etxean sañtu beañik ez da. Izango du adizkiden bat ola-gizon añtean.

KRISTOBAL. AL. (*Tamal.*) ¿Orduan zure ustez, nere semia izango da!

IMANOL. Esan dizut, ez detala ageñbiderik: bañan, nere ustez, bere eñuz izango dala : bada, Txanton'ek ere esan ziran, Sabin'ek miñ aundiya añtu zuela zuk etxetik ateratziaz, ta ez dala geldituko etxe guzia ondatu añte.

KRISTOBAL. ¿Oñela ote da ba!

IMANOL. Añtu, bada-ezpada, oañpeak, eta zaindu.

KRISTOBAL. ¿Nere semiak ausañkeri ori! Ez naiz ba ni ere geldituko basteñ guziak asteñtu gabe, eta nere ondamendia'ren eñudun zein dan jakin gabe.

IMANOL. Ondo egingo dezu : nik ere alegiñak egingo ditut.

KRISTOBAL. Banua. (*Jekitzen da.*) Ta zuk bitañtean, azteñkatu al-danik ondoen kontu oyek.

IMANOL. Ala egingo det.

KRISTOBAL. Gero añte. (*Joaten da.*)

IMANOL. Aguiñ. (*Kristobal joan da gero.*) ¿Kontuak azteñkatu! Ez daukate azteñkatu beañ aundirik. Ongi ikusiak daukazkit.

LAUGAÑEN AGEÑALDIA

Imanol ta Pantxike.

PANTXIKE. (*Kristobal joan ta beriala aterako da.*) ¿Nora joan da naguzia?

IMANOL. ¿Ai, Pantxike! Naguziak buru-auzte asko du!

PANTXIKE. Norbaitek emango dio buru-auzte ori.

IMANOL. Bai ba; ta gaiztagile ori zein dan jakin nai luke.

PANTXIKE. Eroriko da bateren bat.

IMANOL. ¿Azeriyaren lofatza artu al-dezu?

PANTXIKE. ¡Baliteke!

IMANOL. Ori beař degu ba. Lořatza arřu ezkeru jařaitzea bařo besterik ez degu izango.

PANTXIKE. Ori da nik egingo detana: lořatzari jařaitu bilatu arře.

IMANOL. Biyon artean erezago egingo degu.

PANTXIKE. Ez; nik bakařik egitekoa da.

IMANOL. (Benaz.) ¿Ez al-dezu ezagutzen nigan zintzotasunik?

PANTXIKE. ¡Ezagutuko ez det ba!... ¡jene!...

IMANOL. ¡Ez dakit ba!...

PANTXIKE. Ara : bakařik egiten badet, sari osoa neretzat izango da.

IMANOL. ¿Ze sari?

PANTXIKE. Ba; nere azterketaren bidez norbait onuratzten bada, nik uste det saritxoen bat izango detala.

IMANOL. Zuk ez dezu sari beařik. Inřor bařon obeto bizi zera zu.

PANTXIKE. Bai... ez naiz gaizki bizi : bařan, badakizu, obeto nai. ¡Izan ditut nik etxe ontan egun abek bařo obeak!

IMANOL. Badakit zer esan nai dezun.

PANTXIKE. ¿Zer?

IMANOL. (Gaiztoz.) Sabin etxean zanian obeto arřitzen ziřala.

PANTXIKE. Bai: egiya esateko, bai.

IMANOL. Bai ba; Sabin umetatik ezagutu senduen: bere auřtzai izana zera, ta... auřa beti zure menpean.

PANTXIKE. Ez; ¡menpean ez! (Gogoz.) Nere laguntza, ta zainpean bai.

IMANOL. Orain ere zuk, Kristobalen ogasunak bařon Sabin'enak gogotsuago zaintzen dituzu.

PANTXIKE. Sabin gogotsu aldeztu arřen, ez det uste Kristobal'ek zer-esanik izango duenik nere mirabetzaz.

IMANOL. Zuk nai dezuna da, Sabin etxe ontan ikustea.

PANTXIKE. Bai: orixe bai : egiya esan dezu: ta al-badet lořtuko det.

IMANOL. Ta ¿ze gaitz egin dizut nik nere kaltez ibiltzeko?

PANTXIKE. ¿Ni zure kaltez?
 IMANOL. Bai : Sabin etxe ontara etortzea, nere kaltez da.
 PANTXIKE. ¿Zergatik?
 IMANOL. Sabin etofi ezkerro, nere bearik izango ez dalako
 PANTXIKE. (Afasoya du.) Ori, ori : ez da nere arasoa.....
 Kristobal'ek ikusiko du!
 IMANOL. (Benaz.) ¡Ez dezu ba ikusiko Sabin etxe ontan!
 PANTXIKE. Ori..... jorixe bai dala nere arasoa!
 IMANOL. ¡Ikusiko da!
 PANTXIKE. ¡Bai; egiya; ikusiko da! (Deya. Pantxike'k irikitzen du atea.)

BOSKAREN AGERALDIA

Lengoak eta Margari.

MARGARI. ¿Etofi al-da Imanol?
 PANTXIKE. Bai, emen dezu.
 MARGARI. *Sikiera ere.* ¡Jesus! *Por si acaso* etofi naiz amak
 doña Kontxita'kin itz egiten duen bitartian.
 PANTXIKE. (Nik esan detana.) (*Joaten da Pantxike.*)
 MARGARI. (Imanol'i.) ¡Berandu etofi aiz!
 IMANOL. Gutxi gora-bera, betiko bezela, ¿zeñ nai den?
 MARGARI. *Ziertamente;* bigaen aldiz netoñek. (Atzera
 begiratuaz.) ¿Joan dek? Tira, bizkoñ-bizkoñ
 emaidak beañ detana.
 IMANOL. Alpeñik abil : diru-kutxa uts-utsik arkitzen den.
 MARGARI. Ba, atera Banko'tik Kristobal'en izenian, ta
 aldegunian biurtuko dizkiagu.
 IMANOL. Ni bilduñ naun geyago ateratzen.
 MARGARI. ¡Bilduñ e! ¿neretzat dalako?
 IMANOL. ¡Ixilik ago!
 MARGARI. ¡Ez dek izaten bilduñik, ik beañ dekanen!.....
 ¡Lelo!.....
 IMANOL. ¡Bai! ta..... ¿gero ageñtzen baditun gure
 egikerak?

PANTXIKE.

MARGARI. ¡Ze ageritu ta ze beiriketa!.... Badakik, ni beař-beařian arkitzen naizena.... ta sin falta eman beař dirak!

IMANOL. Ta ¿nola antolatuko gaitun?

MARGARI. ¿Nola?..... eřez-eřez. Idatzi zak bost-mila pesetako diru-aterabide bat, eta nik aterako diat *Banko'tik*.

IMANOL. ¡Bai, zera! ¡lengoan bat eta orain beste bat!

MARGARI. ¡Lengoan iretzat eta orain neretzat!..... ta..... bat egin duenak bigařena ere egin lezakek.

IMANOL. Orain ez den aldi-ona.

MARGARI. Ba, ik nai ez badek nik egingo diat. Jo zak siluakin paper au. Beztela, neronek egingo diat. (*Arťzen du ikuřatza.*) (*Etořtzen da Pantxike.*)

PANTXIKE. (Sařtuaz.) Imanol. (*Margari ta Imanol oso ikaraturik.*) Mesedez.....

IMANOL. (*Eřdi-asaře.*) ¿Zeř nai dezu?

PANTXIKE. (*Inguřazti* (cuaderno) *batekin.*) ¡Ez da ezer gizona! : ez asařetu! Galdera bat egitera netořen : bařan, aldi-ona ez ba-da, banua. (*Bira-emanaz.*)

IMANOL. ¿Zeř nai zenduan?

PANTXIKE. Ara..... utsa. Nere ařtu-emanak ezin atzaldurik ari nintzan, ta zuri galdetzera.

IMANOL. Ez det orain astirik.

PANTXIKE. (Badakit nik ere.)

MARGARI. Gero jařiko dizu garbi-garbi.

PANTXIKE. ¡Bai, bail!.... ez du orain-beařik. Gero ařte. (*joaten da.*)

IMANOL. (Amořuz.) ¡A!..... Atso ori bařon xauxun ta ia ximelagorik!.....

MARGARI. Ba, berak ez bazekik, zeř egingo dik ba!

PANTXIKE. ¡Jakín ez!..... Ez beraren ařtu-emanak bakařik, baita neriak eta iriak, etxeakoak eta eři-guzikoak eramateko lain ere bazekin ořek!

MARGARI. Ba..... ez *kasuik* egin : ta egin zak beriala txeke ori.

IMANOL. ¡Azkenengoz izango den gero! (*Idazten du.*)

MARGARI. Azkenengoz nai lenengoz..... Ekatzak. (*Artzen du papera.*) Onekin ederki natxiok. ¡Bost-mila!... ¡Bapo!..... (*Iři-pařez.*) Ik ez dek begirik.

IMANOL. ¿Zer ba?

MARGARI. (*Eskua erakutzi.*) ¿Ez dek ikusten sortija eder au?

IMANOL. ¿Noiz erosi den?

MARGARI. Oraintxen :onea etofi aurretik,

IMANOL. ¡Ba, ba!..... ¡Ofela arkituko aiz beriz ere diru gabe!

MARGARI. ¡*Bueno, bueno!*..... ¿Emen gelditzen al-aiz? (*Laister joatia nai du.*)

IMANOL. Ez; banatxian ni ere : iya baskaltzeko ordua den da. (*Biltzen ditu idazti ta paperak eta deitzen dio Pantxike'ri.*) ¡Pantxike!

MARGARI. ¿Zertarako dek orain Pantxike?

IMANOL. Ba-noala esateko.

PANTXIKE. ¿Zer da?

IMANOL. Bagoaz; da..... ezayozu Kristobal jauna'ri zeregin askotxo daukatela, ta berandutxoago biurtuko naizela.

PANTXIKE. Ondo da.

MARGARI. *Adios, Pantxike.*

PANTXIKE. Zuazte ondo. (*Joaten dira Imanol ta Margari.*)

SEIGAREN AGERALDIA

Pantxike (bakarik) : gero diru-etxe'ko Otsein bat.

PANTXIKE. Zuek biurto orduko zerbait agertuko dala uste det..... Epaikaritzako bear diran argi-bide batzuek aldian ditut; ta orain ikusiko da zein dan erudun ta zein dan erugabea. (*Joaten da urutizkin'ara, ta bertatik itz egingo du.*) Urutitzola.... Bost-amar....(*Etxian izango ote da.*) Pantxike... ¿ondo ta zu?..... Ai, Sabin; gauza aundiyak ikusi ditut..... Margari etofi da Imanol'gana, ta ixilpean ibili naiz azterkatzen zete zebilen, ia arapatu ditut..... Bai..... Bai, agertu da goizean esan dizutana..... Bai, zuaz ta arapatuko dezu, edo beste bat bialdu..... ¡A! ta atzo esan nizuna egiteko ere gauz da aldirik egokiena..... Bai : zuk bialdu zazu onea..... Bai : kontuan egongo naiz..... Bear deguna da, zure aita ardan etxean arapatzea..... Nik ala uste det..... Bai, ori da..... Bizkor ibili. Sabin: ia

aitaren naimena guganatzen degun..... Bai, bai..... Bai..... Bai : Ezer oartzten ez badizut, bialdu Sabintxo..... Ondo da..... Bai; gero arte..... Bai; agur. (*Uzten du urutizkiña.*) Nere azterketak izango du emaitza. Baietz uste det.... Epaikari ona izateko bear-bearena da ernetasuna ta zolitasuna ta ofetan ez dit irabasiko Imanol'ek. (*Etoztzen da otseña.*)

- OTSEIN. ¿Baimenik bada?
- PANTXIKE. Aufera.
- OTSEIN. (Ateratzen du diru-ordaikia.) ¿Kristobal jauna etxian al-da?
- PANTXIKE. Ez. ¿Zer nai dezu?
- OTSEIN. Dirua jaso..... Emen jaitzen du zenbat.
- PANTXIKE. Ba..... neri emanda berdin izango da. Datofenian emango diot Kristobal jaunari.
- OTSEIN. Ez : Paper au ez da Kristobal'i dirua emateko : berak ordaindu bear du.
- PANTXIKE. ¡A! ¿Orduan, zu etzera etofi dirua emateko, eramateko baizik?
- OTSEIN. Ala da. Ta iru egun igaro baño len ordaindu bear du.
- PANTXIKE. Ta ¿zenbat dala esan dezu?
- OTSEIN. Sei mila laurfleko.
- PANTXIKE. ¡Sei mila!..... ¡Ez gutxi ere!..... Ba, berak ikusiko du!
- OTSEIN. Bai. Esango diozu, gero etofiko naizela.
- PANTXIKE. Esango diot; ez du poz aundirik artuko bañan.
- OTSEIN. Gero arte. (*Joaten da.*)
- PANTXIKE. Agur..... ¡Au biziera!..... Alde guzietatik korapiloz lotuta..... ¡Bañan ez! ez da izango luzaroko! Nonbaitetik leftu-araziko diot!

ZAZPIGAËREN AGEËRALDIA

Pantxike ta Kristobal.

- KRISTOBAL. (*Tamal.*) ¡Au ez da biziera!
- PANTXIKE. ¿Zer dezu? ¿Gaizki al-zaude?

KRISTOBAL. ¿Gaizki?..... ¡inoiz bañon gaizkiago! (*Eserita ta oldozkor.*)

PANTXIKE. (Esango ote diot nor izan dan?)

KRISTOBAL. ¡Gaiztagile ori zein dan jakin nai nuke!

PANTXIKE. ¿Ez dezu iñoren susmorik?

KRISTOBAL. ¡Nere semia!..... ez ez det uste!

PANTXIKE. Zure semia biotz aundikua da.

KRISTOBAL. ¡Ez dakit nora jo!... ¡Sei mila laurleko!

PANTXIKE. ¡A! ¿ikusi al-dezu emen izan dan otseña?

KRISTOBAL. ¡Bai, zoritxaréz! Bidean bat egin degu... (*Apalki.*)
Mesede bat eskatu bear dizut, Pantxike.

PANTXIKE. Nai dezun guzia.

KRISTOBAL. Sei mila laurleko bear ditut; eta ez dakit nundik atera.

PANTXIKE. Ba... nik bilatuko ditut. Nere kontu.

KRISTOBAL. ¿Nun bilatuko dituzu ba?

PANTXIKE. Nonbaiten bai.

KRISTOBAL. Ez esan gero bata ta besteari estutasun ontan arkitzen naizenik : ba, lotzagañi izango litzake neretzat.

PANTXIKE. Ez jauna, ez : nik ere ez nuke nai.

KRISTOBAL. Tira ba; ordainduko dizut zintzotasun ori.

PANTXIKE. Ez dezu ordaindu bearik. Nere zuganako maitasunak beartzen nau al-detan guzia zure aldez egitera.

KRISTOBAL. Eskeñikasko. Pantxike.

PANTXIKE. Ez ofegatik; Zuk egin beař dezuna da, zaindu ondo inguruan dabiltzanak, uste-geyerik izan gabe.

KRISTOBAL. ¿Imanol'gatik esan nai dezu?

PANTXIKE. Imanol... da... beste; bañan ez degu orain astirik.

KRISTOBAL. Esan zazu garbi : neri dagokidana bada.

PANTXIKE. Ez : bada, asten banaiz izketan, ez dek bukatuko gaba arte : eta orain lenbizi egin beař deguna da, diru-kontu ori zuzendu.

KRISTOBAL. Tira ba.

PANTXIKE. Gero arte, jauna. (*Joaten da kalera.*)

KRISTOBAL. Ondo da. (*Pantxike joan da gero*) ¡Ni naiz etxe ontako gora-beraen beñi gutxien dakiena!...

Batak nere semiaren gaizki-nai bat dala; besteak Imanol'en eruz dala... ¿Zer egin nezake?... Urteak aufera, osasuna berantz, ogasunak galdu bearian!... ¡Au egokera tamal ta iluna!... ¡Gaizki bear du nere zartzar oak!... (Deitzen dute olara'ko atetik.) Aufera.

ZORTZIGAREN AGEÑALDIA

Kristobal ta Txomin.

- TXOMIN. (*Olarako atetik sartuaz.*) Bilbao'ko olagizon bat etori da.
- KRISTOBAL. Ta zer beař dik?
- TXOMIN. Ba, beren buřni-olako trřamankulu ta trřesna batzuek eskeintzera etori da, erosi nai badituzu.
- KRISTOBAL. ¡Bai!... ořetarako natxiok!
- TXOMIN. ¿Zer esango diot ba?
- KRISTOBAL. Ba... ez degula bear... : ta garaya danian itz egingo degula.
- TXOMIN. Ondo da. (*Abiatzen da.*)
- KRISTOBAL. Itxoik puxka batean. Ik urte asko daramaskik etxe ontan, ta iřork bařon obeto esagutuko dek Imanol. ¿Zer dizkiok bere bizikerari?
- TXOMIN. ¡Nik zer esango dizut ba!...
- KRISTOBAL. Bilduř gabe itz egin zak; bada ez dek izango ire kaltez.
- TXOMIN. Imanol... bai... ona izango da... bařan, nik uste det... bear bařon geyago ondatzen duela.
- KRISTOBAL. ¿Bai?
- TXOMIN. ¡Izango ez da ba! Batetik bestera, bere ama ta ařebakin automobilian ibili ezkerol!
- KRISTOBAL. ¿Ta ire lagun ařtean zerbait aitua al-dek?
- TXOMIN. ¡Ene!... ¡guziak egidak ba-dira!
- KRISTOBAL. ¿Zer ba?
- TXOMIN. Ba... nik ez dakit zer esan ere... ta gařera, guziok arkitzen gera bilduřez bere auřean. ¿Badakizu zer esan zion atzo Ařieta'ri?
- KRISTOBAL. ¿Zer?
- TXOMIN. Ba, asafe-aldi bat izan zuten : ta Ařieta'k esan zion : «Kristobal jauna da nere naguzia, ez zu»; ta Imanol'ek sumiřez erantzun zion : «Nik erakutsiko diat zein dan naguzi ta jabe, datořen astetik aufera gutziago ordainduaz, ta ixilik,

bestela kanpora». Ta orduan, guziok bat-batean esan giñion : «Arieta joaten bada, gu ere bai» : ta... ořetan gera.

KRISTOBAL. ¿Ta zergatik esan ez ba neri? ¿Ez aldeker usterik nigan?

TXOMIN. Bai, bañan.... bildurdez.... Ara, jęgiya diot gero! Imanol'ek luzaro jafaitzen badu, gaizki izango gera!.... Gizon zital, setatsu, ta bioz-gabea da ori.

BEDERATZIGAREN AGERALDIA

Lengoak eta Pantxike.

PANTXIKE. (*Pozez.*) Jauna; alaitu zaite.

KRISTOBAL. ¿Egin al-dezu zerbait?

PANTXIKE. Bear dan guzia.

KRISTOBAL. (Txomin'i) Joaite orain, ta esayok Bilbao'tar ořeri, ez naizela arkitzen ezeren bearian.

TXOMIN. Ondo da. (*Joaten da.*)

PANTXIKE. (Oinguan beartu bear det nere alde.)

KRISTOBAL. Ta zuk ¿zer egin dezu?

PANTXIKE. Ara : ¡Jaungoikua'gandikoa izan da! Apaiz jauna bilatu det onuntz zetofela, ta esan dit : «Kaixo Pantxike : zuen etxera nijoan : ¿Kristobal etxian al-da?» — «Bai jauna; ¿zerbait nai-al du? Nik egitekoa ba da.... » — «Bai esan dit; ta ondo datořkit zu bilakatzea; bada, onuntz netofela, esan dirate beriala joateko Mendiaurera. Peřo gizajoa gaizkiagotu egin dala'ta »

KRISTOBAL. Bai; atzo esan zuten gaizki arkitzen zala.

PANTXIKE. Ořa ba. Ta esan dit, au ekařtzeko zuri. (*Idazti azal bat emanaz.*) Sei mila laurleko dirala, azalian jartzen duen bezela.

KRISTOBAL. (*Ařituta.*) Bañan ¿zer dala-ta?

PANTXIKE. ¡Al!... ixilpekoa dala esan dit. Berari eman diotela zuri ekařtzeko; bañan ixilpean; ta bere eginbeara dala, agindu dioten bezela zuri ematea.

- KRISTOBAL. ¿Zinistuko al-dizut?
- PANTXIKE. Ez ziñistu nai ez badezu.....Ta ¿zergatik ez dezu ba ziñistu bea?
- KRISTOBAL. ¿Nola nai dezu ba..... zeiñena dan jakin gabe sei-mila laurfleko bialtzia?
- PANTXIKE. Ba, sinistu zazu. Izan liteke..... zuri lenago oztutako dirua ere, ta orain damututa, apaizari ematea, zuri ekartzeko. Ori, maiz gertatzen da. Bařengo ařa'ren zirikadak izaren dira oyek.
- KRISTOBAL. Baliteke..... Dana-dala, ondo datořkit, ta eskeřak bialdu ditanari : ta jařaitu dezala lanean bařengo ařak.
- PANTXIKE. Lenbizi Jaungoikuari eskeřak eman bea dizkiogu.
- KRISTOBAL. Bai, ala da. Gaizki arkitzen nintzen, ta zeř egin ez nekiala : bařan, ikusten det ez dirala guziak biotz-gabeak. Ezkeřak zuri ere, Pantxike, nereganako maitasun bizia ageřtu dezulako.
- PANTXIKE. Dakizun bezela, atsegingaři da neretzat zu zorionez ikustea.
- KRISTOBAL. Aspaldi ontan ez degu ba zoriontasun aundirik izan.
- PANTXIKE. Ba, auřerakoan izateko, gauřtik ařtu bea degu bidea.
- KRISTOBAL. Ta ¿zein bide da ori?
- PANTXIKE. Ba.....etsaitasun ta gořotoak alde batera utzi; ta elkařganako maitasunez bizi. (Biotzez.) ¡Ze gauz-edeřa! ta ¡ze zorionsua, senide guziak bata-besteaganako maitasunez bizitzea!
- KRISTOBAL. Uleřtzen det zergatik diozun ori; bařan..... ¡alpeřik aiko zera!
- PANTXIKE. ¡Ez al-da egiya, maitasun ta elkařtasun gabe ez dala ařkitzen zoriontasunik?
- KRISTOBAL. Bai : egiya izango da : baita, zoriontasun ořen beařian ařkitzen naizela ere: bařan..... ¡nik burua makuřtu! jez!
- PANTXIKE. Zuk ez dezu burua makuřtu beařik, lengoak aztu baizik : ta..... ¡igarua igarol!.....
- KRISTOBAL. Bařan ¡zenbat bideř esan dizut ez aitatutzeko neri seme konturik?

- PANTXIKE. (¡Au lana!.....) Ba..... nere gogo ta naikundeak, guzior on-bidez dira.
- KRISTOBAL. Ala izango dira; ta ezkaritzen zaitut: bañan, ez det nai ezeñ ofertaz : ta orain..... utzidazu pakean. Idazki bat egin bear det.
- PANTXIKE. Ondo da..... Ni bitartean, bateren bat etortzen bada ere, eraztutzero nua gela au, ainbeste sartu-irtenaz nazpilatu dute ia. (*Gela eraztutzen azten da. Gero leyotik begiraten du ta itz egiten du beretzat.*) ¡Ez da ageri oraindik!..... ¡Badet igaropen beara!..... Sabintxo datoñenian ikusiko da!. ¡Zailduko ote da bilobatxoaren aurrean ere!..... Ez det uste. Sabintxo'ren liraintasun ta laztantazunak bigunduko dio biotza..... (*Leyora begiratuaz.*) Badator. (*Abiatzen da ateruntz.*)
- KRISTOBAL. Idazki au bota beara dezu bukatzen detanian.
- PANTXIKE. Bai, beriala. (*Joaten da kalerako, atetik.*)
- KRISTOBAL. (*Bakarrik : idazkia'ri begira.*) Nik uste det, onen bestekin naikoa izango dala..... Edo bata edo bestia eroriko da, ta eman bearko du ordainpena..... (*Gogoratuaz.*) ¡Ai! ez nintzan gogoratzen!..... (*Jartzen da beñiz idazten.*)

AMARGAÑEN AGERALDIA

Kristobal, Pantxike ta Sabintxo.

- (*Sabintxo, lenbiziko jaunartze-egunian oituten dan janzkiaz. Sartzen da Pantxike Sabintxo'kin batean; ixilik : Kristobal'ek jaraitzen du idazten Sabintxo'ren etoñera oartu gabe.*)
- PANTXIKE. Tira, Sabintxo, atoz, ia egin esan dizudan bezela (¡Jaungoikuak ikutuko al-dio biotzean!)
- SABINTXO. (*Kristobal'gana auferatuaz.*) ¡Aitona! ¡aitona!
- KRISTOBAL. (*Añituta.*) ¿Zer da au? ¿Nork ekari du ume au onea? (*Asara.*) ¡A! zu (*Pantxike'ri*) zu izango zian..... bañan, badakizu ez detala nai trebekeririk. ¡Ausañkeri ori zuk! (*Zematuaz.*)
- SABINTXO. (*Kristobal'en aseñea ikusiaz, atzeratuko da.*) Aitona asara da.
- PANTXIKE. Ez, Sabintxo; zurekin ez : jolasian ari da. Tira, zuaz aitona'gana. (Kristobal oldozkoñ.)

SABINTXO. Ez : amatxo'gana.
KRISTOBAL. Ume..... ¿Zeñek esan dizu onea etořtzeko?
SABINTXO. (*Bilduřez.*) Amatzok.
KRISTOBAL. ¿Zertara?
SABINTXO. Aitona'ri musu ematera.
PANTXIKE. (*Benaz.*) Ta ondo esan dio. Ordua da, sendi batekoak eta kristauak zaretela gogoratuaz, pakeak egiteko.
KRISTOBAL. (*Biotz ikaraz.*) ¿Ala uste dezu?
PANTXIKE. Sabintxo'ren bularian gauř lenengoz sartu dan Jaun ta Jaungoikuak agintzen dizu.
SABINTXO. Guazen aitatzxo'gana.
PANTXIKE. Ez: Eman lenbizi musu bat aitona'ri. (Sabintxo'k begiratzen dio Kristobali, bařan, ez da ausartzen musu ematera.) Tira, zuaz, aitonak maite zaitu.
KRISTOBAL. Bai..... bai..... atoz..... atoz Sabintxo. (*Joaten da Sabintxo geldi-geldi, ta besarkatzen du Kristobal'ek.*) Atoz, nere biloba..... (*Malkoa jariyo.*) ¡biloba kutuna!..... Zure maitasun bearian arkitzen naiz!.... ¿Maite nazu?
SABINTXO. ¡Askol! (*Muxu emanaz.*)
KRISTOBAL. Eskeřak, jauna, aingerutxo au bialdu dirazulako.
PANTXIKE. Aita'ren ondoren semia.
KRISTOBAL. ¿Aita'ren ondoren?
PANTXIKE. (*Iři-pařez.*) Bai..... Ez dizu bialdu aita, bařan bai bere bitartez bialdu dizu Jaunak beař-beařeko emaitza. Sabintxo'ren lenengoz Jaunartze-egunian.
KRISTOBAL. ¿Sei mila peseta'gatik esan nai dezu?
PANTXIKE. Bai jauna, bai. Egiya esateko garaya da. Sei mila peseta oyek, Sabin'ek zuretzat bialduak dira, egiz ta biotz-biotzez maitatzen zaitulako.
KRISTOBAL. ¿Maite nau Sabin'ek? (*Bere semia'gatik.*)
SABINTXO. Nik aitona maite-maite (*Laztanduaz.*)
KRISTOBAL. Bai, Sabintxo : ¡nere biloba kutuna!.... Ta ¿nun da zure aita?
SABINTXO. Etxian. ¿Etořiko al-da aitona'gana?
KRISTOBAL. (Sabintxo'ri begira.) ¡Gaxua!.....
SABINTXO. ¿Bai, e?

- KRISTOBAL. (*Begiak malkoz beterik.*) Bai, laztana bai. Nik zu beař zaitut; ta zu nere ondoan edukitzeko zure aidak ere etoři beařko du!... (*Erabakiz.*) Tira Pantxike, ¿zuk zeř egiten dezu? ¿Nun da nere bilobatxoaren aita? ¡Iriki zazu ate ori!
- PANTXIKE. Ez da uruti. Beriala etořiko da. (*Joaten da laisteřka.*)
- SABINTXO. ¿Aitatxo etořiko da?
- KRISTOBAL. ¡Bai, Sabintxo!... ¡Lenago etoři beař zuen! ¡Ainbeste urte maitasun gabe!
- SABINTXO. (*Puxka bat aldendu, ta mai gañean egongo dan tresna polit bat ikusiaz.*) ¡Ze polita!
- KRISTOBAL. Zuretzat, Sabintxo.
- SABINTXO. ¿Bai?
- KRISTOBAL. Bai : nai dezun guzia.
- SABINTXO. ¿Nai deta guzia? Ba... *pianu* bat.
- KRISTOBAL. ¡Pianua!... ¿Bai al-dakizu abestutzen?
- SABINTXO. Bai. Aitatxok erakutzita (1). ¿Nai dezu «*Txantxangořia*» abestutzia?
- KRISTOBAL. Tira ba. (*Sabintxo'k abestutzen du «Txantxangořia» (Usandizaga) : bukatuko du «txorietan arģiena txantxangořia» esanaz.*)
- KRISTOBAL. ¡Ta umietan arģiena Sabintxo! (*Besarkatuaz.*)

AMAIKAGAŘEN AGEŘALDIA

Lengoak, Sabin ta Arantzazu : gero Imanol

- PANTXIKE. (*Sartuko da lenbizi.*) Tira, auřera. (*Kristobal'i.*) Ona emen zure seme-alabak. (*Kristobal auřeratzen da.*)
- SABIN. (*Sařtuaz, Arantzazu'kin batian.*) ¿Bada baimenik?
- KRISTOBAL. Bai... Atozte... atozte nere besoetara! (*Besařkatzen ditu.*) ¡Barkatu, seme, bařkatu.
- SABIN. Gu gera, zuri bařkamena eskatzen dizugunak.
- ARANTZAZU. ¡Bařkatu, aita!
- KRISTOBAL. ¡Ze barkatu!... ¡Zorionak!... Aingeru arģean bizi beařian, deabru arģean igaro ditut urteak!

(1) Jafaituko da, Sabintxo'k abestutzen badaki : beztela utzi ta igaro amaikagařen ageřaldira

- PANTXIKE. ¡Au poza!..... ¡Sabintxo! ¡atoz! (*Laztantzzen du.*)
- SABIN. Tori (*Gezuñezko ageřkai bat emanaz.*) ta zer dizkiozun.
- KRISTOBAL. (*Papera'ri begiratu, ondoren.*) ¿Nundik atera dek au?
- SABIN. Pantxike'k urutizkiñez emandako oarpenen bitařtez ařapatu det.
- KRISTOBAL. ¡Imanol ta Margari nere ondatzaleak!
- PANTXIKE. Nere iragarpen guziak bete dira.
- KRISTOBAL. ¡Nere mukeřkeriaren emaitza! ¡Ez nuen bezterik merezi!
- SABIN. Auřerakoan ondo izango gera. (*Sartzen da Imanol olara'ko atetik, eta arituta gelditzen da Sabin ikusteaz.*)
- KRISTOBAL. (*Imanol'i.*) ¿Oraindikan ere ba-dezu onea etořtzeko ausařkeria?
- IMANOL. ¿Zergatik diozu?
- KRISTOBAL. ¡Zergatik! Zure nabařkeriak erantzungo dizu.
- IMANOL. Atzaldu zazuz itz oyek.
- KRISTOBAL. Ara emen zure nabařkeriaren azalpena. (*Gezuñezko ageřkaia erakutziaz.*)
- IMANOL. (*Lotzatuta.*) Ez..... ni ez naiz.
- KRISTOBAL. ¡Agiriyan dagoena ukatzen dezu! ¡Zuaz emendik!
- IMANOL. (*Sabin'gatik.*) Onek asmatuko zuen ori.
- SABIN. Bai : zerřbait asmatu beař, zure gizatxařkeriz nere aita'ren ondamendiya ikusi bařo len.
- KRISTOBAL. ¡Esan dizut. irřtetzeko beriala etxe ontatik!
- IMANOL. (*Tamal.*) ¿Ez al-dezu esagutzen nere zintzotasunik?
- KRISTOBAL. Ez. Garbi esagutu detana da nere semiaren maitasun ta zintzotasuna : ta ez det besterik beař nere inguruan bera baizik. ¡Zuaz nigandik uruti! (*Imanol'ek irřtetzen du lotzaturi'k.*)
- SABINTXO. (*Kristobal'i.*) ¿Gizon gaizto-ori etořiko al-da beřiz?
- KRISTOBAL. Ez, maite. ¡Bukatu da, aitu da, ařotz-zale ta erřbestekeria! Sabin ta Arantzazu'ren laguntzaz, biziko dira zorionez beterik AITONA TA BIŁOBA.